



2011/11/4ko prentsa-oharra

ESKAINITZA IMMOBILIARIOARI BURUZKO ESTADISTIKA, 2011ko 3. hiruhilekoa

**2011ko bigarren hiruhilekotik hirugarrenera, EAEko etxebizitza berrien metro koadro erabilgarriaren eskaintza-prezioa % 0,5 jaitsi da, eta erabiliarena, % 0,2.**

**Higiezin agentziek etxebizitza bat saltzeko behar duten batez besteko denbora 9,1 hilabetekoa da.**

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak egindako 2011ko hirugarren hiruhilekoko eskaintza immobiliarioaren estatistikaren arabera, erabilitako etxebizitza baten metro koadro erabilgarriaren batez besteko prezioa 3.858 eurokoa da, zertxobait jaitsi da aurreko hiruhilekoarekiko, % -0,2, eta iazko hiruhileko berarekiko, % -0,9. Bestetik, etxebizitza libre berriaren ere zerbait jaitsi da aurreko hiruhilekoarekiko, % 0,5, 3.808 eurokoa baita, eta % 3 jaitsi da iazkoa hiruhileko berarekin alderatuta.

Araban agentziek eskaintako erabilitako etxebizitzaren metro koadroaren prezioa % 0,9 jaitsi da, azken hiruhilekoan, eta 2010eko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuz gero, % 5,8.

Gipuzkoan % 1,5 jaitsi da aurreko hiruhilekoarekiko, eta % 5,8 2010eko hirugarren hiruhilekoarekiko. Bizkaian, % 0,2 jaitsi da 2011ko bigarren hiruhilekoarekiko, baina azken 12 hilabeteak hartuz gero, igo egin da, guztira, % 0,4.

Bilbon erabilitako etxebizitzen metroko koadroko prezioa igo egin da azken hiru hilabete hauetan, % 0,7, ia Donostian izan duen igoera bera, % 0,6 igo baita. Aitzitik, Vitoria-Gasteizen % 0,9 jaitsi da, epe berean. Azken hamabi hilabeteotako bilakaera kontuan izanik, Donostian igo egin dira eskaintza-prezioak, (% 0,9), eta Vitoria-Gasteizen eta Bilbon aldiz, hazkundera negatiboa izan da, % 6,2 eta % 2,1 gutxiago, hurrenez hurren.

Bitartekari lanak egiten dituzten higiezin agentziek esaten dute saltzaileek % 13,1 inguru jaitsi behar izaten dutela erabilitako etxebizitzen prezioa, salmenta gauzatu ahal izateko. Horrek esan nahi du, azken hiru hilabeteetan eskaintzaren azken prezioa beste % 0,7 jaitsi dela, eta aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, % 3,2.



Etxebizitza berri librearen metro koadroaren eskaintza-prezioa, 3.808 euroren bueltan baitabil, ia mantendu egin da hiruhilekoan, % 0,5 soilik jaitsi da, baina urtebeteko epea hartuta, % 3ko jaitsiera metatua izan du.

Etxebizitza berri librearen metro koadroaren eskaintza-prezioa jaitsi egin da Gipuzkoan, bai aurreko hiruhilekoarekiko, % 1,2 bai iazko hirugarren hiruhilekoarekiko, % 6,1. Araban azken hiruhilekoko jaitsiera %0,6koa da, eta 2010eko hirugarren hiruhilekoarekiko % 1,5ekoa.


Bizkaian, ostera, metro koadroaren prezioaren % 0,2 jaitsi da azken hiru hilabeteetan, eta % 2,2ko jaitsiera metatua izan du azken urtebetean.

**Etxebizitza librearen metro koadroaren prezioa % 1,2 igo da Donostian azken hiruhilekoan**

Aldiz, Bilbon etxebizitza librearen eskaintza-prezioak % 2,8 jaitsi dira, eta Vitoria-Gasteizen, berriz, % 0,9. Azken hamabi hilabeteetan etxebizitza librearen metro koadroko eskaintza-prezioak % 13 egin du behera Bilbon; Vitoria-Gasteizen, % 1,8; eta Donostian, % 1,3.

**Sustatzaile eta higiezin agentziek etxebizitza librearen prezioa 9.900 euro jaitsi dute azken hamabi hilabeteetan, hots, % 3,1.**

Etxebizitzen m<sup>2</sup> erabilgarriaren arabera batez besteko prezioaren bilakaera etxebizitza motaren arabera eta hiruhileko bakoitzeko. 1996-2011. Euskadiko AE.  
Euroak.



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eskaintza inmobiliarioari buruzko estatistika



*EREDUZKO ETXEBIZITZA: Etxebizitza berria, kolektiboa, sustapen librekoa, sustatzaileak zuzenean eskainitakoa, akabera-maila "arrunta" duena eta 60 eta 90 m<sup>2</sup> arteko azalera duena.*

Sustatzaile eta higiezin agentziek etxebizitza libre berriei jartzen dieten batez besteko eskaintza-prezioa 311.800 euro ingurukoa izan da, 2011ko hirugarren hiruhilekoan, % 0,7 jaitsi da, aurreko hiruhilekoarekiko, eta % 3,1, aurreko hamabi hilabeteekin alderatuz gero.

Bigarren eskuko etxebizitzaren batez besteko prezioa -340.700 eurokoa, etxebizitza libre berria baino 28.900 euro gehiago, % 1,4 igo da azken hiruhilekoan, eta horrela, % 4,8ko igoera metatua izan du, azken 12 hilabeteetan; hau da, 15.600 euroko igoera.

Araban etxebizitza libre berriaren eskaintza-prezioak % 1,5 jaitsi dira azken hiruhilekoan, eta % 2,8, azkeneko urtean. Etxebizitza erabiliaren prezioa, berriz, batez beste % 0,6 jaitsi da, azken hiru hilabeteetan; eta % 5, azken urtean. Lurralde horretako etxebizitza librearen batez besteko prezioa 286.500 eurokoa da, eta erabiliarena, 270.100 eurokoa.

Bizkaian hirugarren hiruhilekoan 308.300 eurotan eskaini da etxebizitza libre. Aurreko hiruhilekoan erregistraturiko prezioa %0,2 jaitsi da, eta 2010eko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuz geroz, jaitsiera % 1,9ra iristen da. Baina, erabilitakoen prezioa igo egin da, % 2 bigarren hiruhilekoarekin alderatuz; eta horrekin, aurreko urtekoarekiko % 9,6ko igoera izan du. Lurralde horretako etxebizitza erabiliaren egungo batez besteko prezioa 342.200 euroren bueltan dabil.

Gipuzkoak, berriz, eutsi egin die etxebizitzaren prezio garestienei, eta etxebizitza libre berria 327.900 euro kostatzen da, eta bigarren eskukoak, 385.800 euro. Lehenengo etxebizitza motaren prezioa % 1,3 jaitsi da azken hiru hiruhilekoan, eta bigarrenarena, % 0,7. Azken hamabi hilabeteetan, etxebizitza libre berriaren prezioa % 5,5 jaitsi da, batez beste, eta bigarren eskukoarena, % 3,2.

***Azken hamabi hilabeteetan, etxebizitza berri librearen eskaintza-prezioa 49.000 euro jaitsi zen Bilbon; 21.800 euro, Donostian; eta 15.200 euro Vitoria-Gasteizen.***

Azken hamabi hilabeteetan higiezin agentziek eta sustatzaileek % 11,1 jaitsi dute Bilboko etxebizitza libre berriaren prezioa. Donostian, % 5 jaitsi dute, eta Vitoria-Gasteizen, % 4,8.

Azken hiruhilekoarekin alderatuta, etxebizitza horien salmenta-prezioa % 2,8 jaitsi da Bilbon; % 2,1, Vitoria-Gasteizen; eta % 1 Donostian. Batez besteko prezioa 412.700 eurokoa da Donostian, 391.600 eurokoa Bilbon, eta, baxuena, 299.700 eurokoa, Vitoria-Gasteizen.



ETXEBIZITZA, HERRI LAN  
ETA GARRAIO SAILA  
*Zerbitzu Zuzendaritza*  
*Estatistikarako Organo Berezia*

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,  
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES  
*Dirección de Servicios*  
*Órgano Estadístico Específico*

Bestetik, erabilitako etxebizitzak eutsi egin dio prezioari azken hiruhilekoan; Vitoria-Gasteizen 274.700 eurokoa da, eta Bilbon, 393.700 eurokoa. 2010eko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, Vitoria-Gasteizen batez besteko prezioa % 4,6 jaitsi da, eta Bilbon, % 2,2. Donostian prezioek % 4,7 egin dute gora, bai azken hiruhilekoan, bai azken urtean, eta hiruhileko honetan 511.200 euro tara iritsi dira.

**Alokatzeko etxebizitza librean batez besteko errenta 904 eurotan dago, eta babestutakoena -BOE eta etxebizitza sozialena-, 252 eurotan.**

Etxebizitza librearen kasuan % 0,8ko jaitsiera da hori, iazko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 0,7ko jaitsiera aurreko hiruhilekoarekiko. Babestutako etxebizitzaren batez besteko alokairua % 8,9 igo da azken hiruhilekoan, eta % 26,1, azken urtean.

Babestutako etxebizitzak -BOEk eta etxebizitza sozialak-, 110.300 euroko prezioan ari dira saltzen -1.515 euro metro koadro erabilgarriko-. Etxebizitza horien metro koadroko batez besteko prezioak % 1 egin du gora azken bi hiruhilekoen artean, eta 2010eko hiruhileko berarekin alderatuta, % 2,5.

***Higiezinen agentziek etxebizitza bat saltzeko behar duten batez besteko denbora 9,1 hilabetekoa da, duela urtebete baino hilabete erdi pasatxo gehiago.***



ETXEBIZITZA, HERRI LAN  
ETA GARRAIO SAILA  
Zerbitzu Zuzendaritza  
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,  
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES  
Dirección de Servicios  
Órgano Estadístico Específico

HIGIEZINEN ESKAINTZARI BURUZKO INKESTA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN		2011ko 3. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldaketa		Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldaketa	
ERABILGARRIAREN BATEZ BESTEKO PREZ		Euroak		Euroak	Ald %	Euroak	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	BOE berria/Etxeb. soziala	1,515		15.0	1.0	36.5	2.5
	Berri librea	3,808		-19.5	-0.5	-118.9	-3.0
	Erabilia	3,858		-5.9	-0.2	-34.3	-0.9
Araba	Berri librea	3,473		-19.5	-0.6	-52.8	-1.5
	Erabilia	3,277		-30.7	-0.9	-200.7	-5.8
Bizkaia	Berri librea	3,844		-6.2	-0.2	-87.7	-2.2
	Erabilia	3,720		-8.9	-0.2	13.8	0.4
Gipuzkoa	Berri librea	3,906		-49.0	-1.2	-255.6	-6.1
	Erabilia	4,495		-66.4	-1.5	-277.1	-5.8
Euskal Autonomia Erkidegoa	(1) EREDUZKO ETXEBIZITZA	3,457		-18.4	-0.5	-10.4	-0.3
Berria librea	Gasteiz	3,706		-32.4	-0.9	-69.6	-1.8
	Bilbo	4,819		-137.7	-2.8	-722.3	-13.0
	Donostia	4,758		57.3	1.2	-60.7	-1.3
Erabilia	Gasteiz	3,314		-30.4	-0.9	-218.2	-6.2
	Bilbo	4,184		30.7	0.7	-91.6	-2.1
	Donostia	5,691		32.0	0.6	52.2	0.9
ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO PREZIOA		Milaka Euro		Milaka Euro	Ald %	Milaka Euro	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	BOE berria/ Etxeb. soziala	110.3		1.1	1.0	-1.5	-1.3
	Berria librea	311.8		-2.3	-0.7	-9.9	-3.1
	Erabilia	340.7		4.8	1.4	15.6	4.8
Araba	Berria librea	286.5		-4.3	-1.5	-8.1	-2.8
	Erabilia	270.1		-1.7	-0.6	-14.2	-5.0
Bizkaia	Berria librea	308.3		-0.7	-0.2	-6.0	-1.9
	Erabilia	342.2		6.6	2.0	29.9	9.6
Gipuzkoa	Berria librea	327.9		-4.2	-1.3	-19.0	-5.5
	Erabilia	385.8		-3.3	-0.9	-12.7	-3.2
ETXEBIZITZA ESKAINTZA		Unitateak	%	Unitateak	Ald %	Unitateak	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	Guztizkoa	42,328	100.0	5,362	14.5	14,102	50.0
	BOE berria/Etxeb. soziala	6,969	17.8	1,394	25.0	3,559	104.4
	Berria librea	5,212	19.4	301	6.1	514	10.9
	Erabilia	27,762	51.2	3,749	15.6	10,661	62.3
	Soziala/Librearen Alokairua	2,386	11.5	-82	-3.3	-632	-20.9
ALOKAIRU ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO ERRENTA		Euroak		Euroak	Ald %	Euroak	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	BOE / Soziala	251.7		20.6	8.9	52.1	26.1
	Librea	904.4		-6.8	-0.7	-7.6	-0.8
ETXEBIZITZA BAT SALTZEKO BEHAR DIREN BATEZ BESTEKO HILABETEA AZKEN PREZIOAREN MURRIZKETAREN BATEZ BESTEKO EHUNEKOA.		9.1		0.3	3.5	0.8	9.9
ETXEBIZITZA FRABILIAK		%		Aldea portzentaje puntutan	Ald %	Aldea portzentaje o puntutan	Ald %
EAE Araba Bizkaia Gipuzkoa	EAE	13.1		0.7	5.9	-3.2	-19.5
	Araba	3.8		-0.5	-12.5	-6.8	-64.5
	Bizkaia	12.0		-1.7	-12.2	-0.3	-2.2
	Gipuzkoa	15.1		2.5	19.8	-8.3	-35.7

(1) Etxebizitza berria, kolektiboa, sustapen librekoa, sustatzaileak zuzenean eskainitakoa, akabera-maila "arrunta" duena eta 60 eta 90 m<sup>2</sup> arteko azalera duena.

Ohar metodologikoa



**ETXEBIZITZA, HERRI LAN  
ETA GARRAIO SAILA**  
*Zerbitzu Zuzendaritza*  
*Estatistikarako Organo Berezia*

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,  
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES**  
*Dirección de Servicios*  
*Órgano Estadístico Específico*

Hiruhilekoaren amaieran elkarrizketatutako 119 higiezin agentziak eta 5 etxebizitza baino gehiagoko sustapenak dituzten 171 enpresa sustatzailek osatutako lagin batetik atera dira 2009ko hirugarren hiruhilekoari buruz aurkeztutako datuak. Nolanahi ere, ez dira salmenta-prezioak, eskaintako prezioak baizik. Prezioak, eskaintza eta alokairuak kalkulatzeko, laugarren mailako batez besteko mugikorrek ateratzen dira, ausazko aldatetak gutxiagotzeko.

---

***Informazio gehiago nahi izanez gero:***

*Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia*

*Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Harremanetarako pertsona: Edurne Domingorena*

*Tel.: +34-945-01 97 12 Fax.: +34-945-01 64 07*

*Prentsa-oharrak interneten: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.*

*WEBGUNEA: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.*